

**F. GARCÍA LORCAREN HIRU OLERKI,
LAUAXETAK EUSKERATUAK**

Azken hamarkadetan argitaratuak izan dira Lauaxetaren Olerkiak, adibidez, Santi Onaindiaren eta Jon Kortarren eskutik. Santik Lauaxetak euskarara itzulitako olerki batzuk ere argitaratu zituen; olerki hauek Lauaxetak berak argitaratu zituen 1928-1931ko urteetako *Euzkadi* egunkarian, eta olerki hauen autoreak hauek dira: Charles Baudelaire, Paul Verlaine, Carducci, Victor Hugo, Maurice Maeterlinck, Tennyson, Jacint Verdaguer, Sully-Prudhomme, Banville, Dante Alighieri, Francis James, etab.

1935eko urtarrilaren 29an Lauaxetak Federico García Lorcari baimena eskatu zion bere olerkiak euskarara itzulita argitaratzeko; eta eskutitz horretan Lorcaren euskarara itzulitako hiru olerki txiki bidali zizkion adibide gisa. Lau orri original horiek argazki bezala agertu ziren Jon Kortazarren lan baten: *Esteban Urkiaga, Lauaxeta (1905-1937)*, Vitoria-Gasteiz, 1995, p.14 (Bidegileak).

Orain argitaratzen ditugu hiru olerki labur hauek euren jatorrizko testuaren alboan, Lorcaren marrazki batzuekin batera.

J.U.

CAZADOR

¡Alto pinar!
Cuatro palomas por el aire van.
Cuatro palomas
vuelan y toman.
Llevan heridas
sus cuatro sombras.
¡Bajo pinar!
Cuatro palomas en la tierra están.



EIZTARI

¡Lerdi goitarra!

Lau uso airian duaz.

Lau uso zuri

gora-beraka.

Zauriz daroez

euren itzalak.

¡Lerdi betarra!

Lau uso lurrean datzaz.

Lauaxeta'k euzkeratuba

CANCION DE JINETE

CORDOBA.


Lejana y sola.

Jaca negra, luna grande,
y aceitunas en mi alforja.
Aunque spea los caminos
Yo nunca llegaré a Córdoba.

Por el llano, por el viento,
jaca negra, luna roja.
La muerte me está mirando
Desde las torres de Córdoba.

¡Ay qué camino tan largo!
¡Ay mi jaca valerosa!
¡Ay que la muerte me espera,
antes de llegar a Córdoba!

Córdoba.
Lejana y sola.



el Jue - Juan Luna


ZALDIKARI'REN ABESTIJA

*Córdoba,
urrun eta bakarra.
Bior baltz, illargi andi,
ta gaimelurak sakuan.
Bidiak ezautu-arren
enaz sartuko Córdoba'n.
Aran-ziar, aze-ziar
bior baltz, illargi gorri.
Córdoba'ko torretatik
Erijo so-dago neure.
¡Bide orren luzerea!
¡Oi neure bior zintzua!
Córdoba'ratu baño len
beira daukat erijua!
Córdoba,
urrun eta bakarra.*

Lauaxeta'k euzkeratuba

DESPEDIDA

Si muero,
 dejad el balcón abierto.
 El niño come naranjas.
 (Desde mi balcón lo veo).
 El segador siega el trigo.
 (Desde mi balcón lo siento).
 ¡Si muerto,
 dejad el balcón abierto!



AGIRRA

*Ilgo banaz,
itxi zabalik txeigua.*

*Laranxa-jaten umia.
(Neure txeigotik dakusat)*

*Gari-ebaten paillia.
(txeigotik senti-daruat)*

*¡Ilgo banaz,
itxi zabalik txeigua!*

Lauaxeta'k euzkeratuba